


Aurkezpena



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

1. DBH-ko bigarren zikloan proposatutako hezkuntza materiala

Karpeta pedagogiko honek hainbat proposamen didaktiko ditu, eta, horien bidez, curriculumeko materia bakoitzetik abiatuta, gizartearen parte-hartzearen gaia landu daiteke. Prozedurazko proposamen berrietatik abiatuz jarrerak eta balioak lantzeko apustua egiten duen materiala da. Garrantzitsuenak ez dira, beraz, kontzeptuei dagozkien edukiak; aitzitik, elkertasuneko jarrera arduratsuak lortzeko eta ikaskuntza garrantzitsuak lortzeko aukera ematen duten prozedura berritzaileak dira oinarritzkoak.

Proposamen hau herritartasunaren kontzeptua lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren bigarren urte honetan sortutako hezkuntza-materialaren zati bat aurkezten da; material honek, hain zuzen, gizartearen partaidetzaren gaia lau premisa hauetatik lantzeko aukera ematen du:

- Antolatutako pertsona askoren ahaleginari eta parte-hartzeari esker lortu dira gauza gehienak gizartean.
- Eremu zabalagoetan parte hartzeko, gertuen dauden eremuetan parte hartzen hasi behar da (familia, ikasgela, auzoa).
- Mundua aldatzen laguntzeko aukera ugari dago.
- Parte-hartzeak bizi garen munduko protagonistak izateko eta pertsona ororentzako mundu duin eta justuagoa eraikitzeko aukera ematen du.

Hiritar gisa bizi garen gizartean sartu eta parte hartzeko erantzukizuna –gure gain hartu behar duguna– lantzeko jarduera-proposamenak egiten dira hainbat curriculum-diziplinen ikuspegitik. **Matematikaren** arloan, kontsumo arduratsuari eta parte-hartzeari bide ematen dioten aurrekontuei buruzko ariketen bidez, gizartean parte hartzeko bide berriak ezagutzea eta balioestea da helburua; **Natur zientzietan**, kasu praktikoak ebatziz eta rol-jokoak erabilita, osasuna sustatzeko gizarte-gaitasunak, baliabideak eta trebetasunak lantzen dira; **heziketa plastikoan**, konposizioaren ahalmen espresiboak lantzen dira, elkarrekin egindako lanak norbere lanari onurak ala kalteak eragiten dizkion aztertzeko; **hizkuntza eta literatura** arloetan, hiritarren iritzia bideratzeko komunikabideen hedadura eta balioa aztertzen da eta horiek hiritarrentzat dituzten tokietan parte hartzea proposatzen da; **atzerriko hizkuntzak** arloan, dagokigun munduan parte hartzeari buruzko galderak egiten dira abestien bidez; **gizarte-zientzietan**, hurbileko ingurunearen analitistik abiatuz, helburu komunak lortzeko estrategia antolatuak eta koordinatuak definitzen dira taldean; **musikan**, hainbat obra musikal aztertuz, musikaren erabilera sozialei eta asmo espresiboari buruzko hausnarketa egiten da; **erlijioan**, mundua eraldatzeko norbere inplikazioaren inguruan hausnarketa egiten da. Horrez gain, bigarren hez-



kuntzako lehen ziklorako proposamen didaktikoan, **heziketa fisiko eta etikarako** beste jarduera batzuen proposamenak egiten dira. Haiek ere erabil daitezke ziklo honetan. Azken kasu horretan, batxilergoko materiala ere erabil daiteke.

Hauek dira materialamartxan sarriz nahi diren **helburu orokorrak**:

- Hitzezko eta idatzizko mezuak zuzentasunez, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea, komunikatzeko eta norbere pentsamendua antolatzeke erabiliz.
- Hainbat iturri erabiliz informazioa lortzea eta aukeratzea, era autonomoan eta kritikoan tratatzea eta ulertzeko moduan antolatzea.
- Gizarteen funtzionamendua arautzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki hiritarren eskubide eta erantzukizunei dagozkienak, eta norberaren horiekiko irizpide eta jarrera pertsonalak eratzea.
- Norbere ekintzek, ohiturek eta erabakiek osasun indibidualean eta kolektiboan dituzten ondorioak eza-gutzea eta ulertzea.
- Taldeko harremanak izatea eta jardueretan parte hartzea, jarrera solidarioekin eta aurreiritziak gaindituz eta edozein diskriminazio-mota baztertuz.
- Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak lantzea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Zikloan gai hau lantzen hasteko irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko denbora eta materiala edukitzea komeni dela uste dugu, baita helburu nagusiak zehazteko eta ikastetxearen errealitatera egokitzeko ere.

Horretarako, orientazio gisa erabiltzeko bi dokumentu aurkeztuko dira. Lehen dokumentua *“Munduko hiritarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo”* da. Bertan hiru urte iraungo duen proiektuaren filosofia aurkezten da. Lortu nahi dugun hiritarraren kontzeptua definitzen da eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarren dokumentua *“Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea”* da. Hor, karpeta honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenean oinarritutako filosofia aurkezten da. Material horiek badituzte osagarri batzuk ere: posterrak, bideoak, lehiaketak, mahai-jokoak eta ALBOANen aholkularitza- eta trebakuntza-zerbitzua.



Dokumentu horiek irakasleak eta gurasoak trebatzeko oinarri gisa erabil daitezke. Trebakuntza-saio horietan ikuspuntuak partekatu, testuinguru zehatzen arabera lan egiteko lehentasunak ezarri eta proposamenak osa daitezke.

Orain, hiru trebakuntza-saio proposatuko ditugu klaustroan, taldeka edo gurasoekin eztabaidatzeko.

1. saioa:

Aurrez *"Munduko hiritarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo"* dokumentua emango zaie.

1. Taldekako dinamika: hiritartasuna hitzaren inguruan scrabble jokoak.
 - a. Agertzen diren hitzen inguruan eztabaidatzea.
 - b. Horien lehentasuna.
2. Hiritartasunari buruzko dokumentuaren inguruan galdera hauek planteatzea.
 - Dokumentuaren inguruko azalpenak edo iruzkinak.
 - Zer iradokitzen dizu hiritartasuna hitzak?
 - Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
 - Zer zerikusi dauka horrek zure heziketa-lanarekin?
 - Arazo hau barne hartzen duten zein proposamen eta ekimen ezagutzen dituzu?
 - Bi alderdi hauei dagokienez, zein proposamen iruditzen zaizkizu beharrezkoak edo iradokitzaileak?
 - Gaiak
 - Metodologia
3. Taldeka lan egin eta gero bateratu.

2. saioa:

1. Taldeka eta aurreko saioan esan dena kontuan hartuz, 'hiritartasuna ikastetxean eta ikasgelan' gaiaren inguruan diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Gai hau lehiaketan aurkeztea: hiritarren parte-hartzea.

“**Hiritartasun unibertsala lortzeko parte hartzea**” dokumentutik eta galdera eta iradokizunetatik abiatuko da.

Dokumentua lantzeko galderak

Gure klaseei dagokienez...

- Zein beste elementu sartuko zenituzke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten dituzu zure inguruan? Zein elementu positibo estimatzen dituzu gure munduan? Zein neurritaraino uste duzu diagnostiko honek balio duela zure ikasleen artean?
- Noiz ohartzen zara ikasleek erantzukizun-zentzu handiagoa dutela? Zein egoeratan? Nola susta dezakezu erantzukizuna ikasleen artean? Ikasleak gelan edo ikastetxean parte hartzeko zein beste bide sor daitezke?
- Zein argumentu erabiltzen dituzu ikasleek errespetua, guztien ongizatea eta elkar zaintzarekin zerikusia duten gaitan erantzukizuna izan dezaten? Zein iritzi duzu diagnostiko honekiko? Familian, ikastetxean, herrian, munduan... nola sentitzen zara zure eskubideak erreklamatzeko eta defendatzeko edo zure erantzukizuna arriskuan ipintzeko eta egoera horiek aldatzeko parte hartzean?

Gure buruari dagokionez...

→ *Nire parte-hartzea*

Guk baino hobeto inork ez daki zenbatekoa den gure gaitasuna eta parte hartzeko aukera, sarritan eska daitekeena baino harantzago dagoena: Zein dira nire ustez nire erantzukizunak hezkuntza-lanean parte hartzeari dagokionez? Zein daude nire “laneko” erantzukizunak baino harantzago?

Hezkuntza-komunitate baten partaide gisa: partaidetzarako zein bide eta mekanismo sustatu behar direla uste duzu? Nork du erantzukizun hori?

→ *Besteen parte-hartzeari dagokionez*

Pertsona guztiek parte hartzeko beharraren inguruan gero eta kontzientzia handiagoa dago, eta horrek besteen parte-hartzean eta eraginean garrantzi berezia hartzen du (bereziki behartsuenen parte-hartzean). Hezkuntza-arloan ikasleen, gurasoen, irakasle ez direnen, langileen, patronalaren eta abarren parte hartzeaz ari gara. Zein dira parte hartzeko bideak? (kontuan hartu aipatu ditugun talde desberdinak). Benetan zein aukera dituzte eragiteko erabakiak hartzerakoan? Nola susta dezakegu gutxiago parte hartzen duten taldeen partaidetza?

3. saioa:

1. Taldeka, galderak eztabaidatu eta ikastetxean edo hezkuntza-zikloan parte hartzeari buruzko diagnostikoa egin.
2. Bateratze-lana.
3. Helburu nagusiak zehaztu eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

Ikastetxea girotzeko posterrak erabiliz gizartearen parte-hartzea modu sekuentzialean, mailakatuan eta koherentean lantzeko, ALBOANek posterrak honako ordena logikoan jartzea proposatzen du:

- Parte-hartzeak bere fruituak ematen ditu
- Gure esku dago gustuko ez duguna eraldatzea.
- Zu gabe ez dago puzzlerik
- Bizi parte hartuz
- Igo eta jaitsi parte hartuz
- Kostatu egiten da, baina merezi du
- Parte hartu bai, baina zein estilorekin?
- Pentsatu pluralean eta eskatu singularrean
- Aztertu parte-hartzearen bideak.
- Guk parte hartzen dugu. Nola? Non? Zertarako? Norekin?

3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda ematen dizugu. Horietan partaidetzaren inguruko beste baliabide interesgarri batzuk ematen dira eta informazio gehiago lortu ahal izango duzu.

Documentazioa

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA. SEVILLAKO UNIBERTSITATEA.

<http://www.mec.es/cide/rieme/documentos/pmurillo/pmurillo2.pdf> IKASTETXEETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA: LANBIDE ARTEKO LANKIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.campus-oei.org/oeivirt/rie15a03.htm> INSTITUTU ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA: HAIEN ERREALITERA HURBILTZEA



<http://www.clacso.org/wwwclacso/espanol/html/libros/juventud/juventud.html> GAZTEEN PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA MENDE BERRIAN, LATINOAMERIKAKO IKUSPEGIA

<http://rehue.csociales.uchile.cl/publicaciones/enfoques/02/edu02.htm> ESKOLAREN (PUBLIKOA) EZINBESTEKO PARTE-HARTZEA, TXILEKO IKUSPEGIA.

<http://www.fao.org/Participation/espanol/ourvision.html> PARTE-HARTZEAREN ETA GARAPENAREN ARTEKO EZINBESTEKO LOTURA.

Araudiak

<http://www.mec.es/cesces/2.3.d.htm>. ESTATUKO ESKOLA-KONTSEILUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

<http://www.mec.es/cesces/2.4.e.htm>. HEZKUNTZAREN PARTE-HARTZEA EUROPAKO BATASUNEAN

Hezkuntzako esperientziak

<http://www.uv.mx/iiesca/revista/suma34.html> INGURUMENeko HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA, PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

<http://www.ericfacility.net/ericdigests/ed432408.html> GURASOEK ESKOLAN DUTEN PARTAIDETZA AZTERTZEN DUEN ARTIKULUA.

<http://www.participacion-ciudadana.or.cr/> COSTA RICAKO HIRITARREK PARTE HARTZEKO PROIEKTUA.

<http://www.campus-oei.org/salactsi/osorio2.htm> URAREN ARAZOAN HIRITARREK IZANDAKO ESPERIENTZIA.

<http://www.cma.junta-andalucia.es/menu04.html> INGURUMEN-HEZIKETAN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ESPERIENTZIAK ETA DOKUMENTAZIOA ANDALUZIako JUNTAN.

<http://www.vivalaciudadania.org/todo.htm> PARTE-HARTZEA ETA HIRITARTASUNARI BURUZKO TAILERRAK ETA DINAMIKAK KOLONBIAN.

Parte hartzeko proposamenak

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/2/textos-actua.html> AMNESTY INTERNATIONAL-EN PROPOSAMENA.

http://espanol.ashoka.org/Public/IG_ParticipacionCiudadana.asp ASHOKA-REN (SUSTATZAILE SOZIALAK) PROPOSAMENA.

<http://www.cje.org/actividades.nsf/sub!readform&cat=participacion&subcat=asociacionismo>. ESPAINIAKO GAZTERIA KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HAREN PROPOSAMENAK.

<http://www.enredate.org/esp/htm/index.htm>. UNICEFEN PROPOSAMENA IHESARI BURUZKO KANPAINARAKO.

<http://www.icftu.org/petition.asp?Name=childlabour&Language=ES> CIOSLREN PROPOSAMENA HAURREN LANAREN KONTRAKO KANPAINAN PARTE HARTZEKO.

<http://www.participar.net/> Sareko PARTAIDETZAREN ESPERIENTZIA.

<http://www.unicef.org/voy/es/meeting/lab/labhome.html> HAURREN LANAREN INGURUKO PROPOSAMENA.


http://www.intermonoxfam.org/html/cam_zon.html INTERMON-EN PROPOSAMENA.



Matematikak



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeen eta herrialde industrializatuen arteko diferentziak ezagutzea.
- Munduko kontsumoaren beraren ondorioak eta kontsumo arduratsua egiteko egon daitezkeen aukerak aztertzea.
- Parte hartzeko bide berriak ezagutzea eta esperimendatzea, aurrekontu parte-hartzaileen bitartez.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan era aktiboan eta erantzukizunez parte hartzea.
- Proporzionaltasun-kalkuluak egiteko ehunekoak erabiltzea.
- Informazioak kudeatu edo transmititzeko kodeak eta taulak, numerikoak eta alfanumerikoak, interpretatu eta egitea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Munduko merkatua”

Deskribapena: “Hirugarren Mundua” deiturikoan dagoen herrialderen batean egindako produktuen etiketak, prezioa jarrita, ekar ditzatela eskatu aurreko saio batean. Taldeka jarri eta produktu horietako bat aukeratu behar dute. Ondoren, merkaturatze-prozesuan parte hartzen duten eragile guztien artean prezio hori nola banatzen den (1.1. fitxan emandako argibideak erabili) eta horietako bakoitzari zein ehuneko dagokion kalkulatu behar dute.

Gero, galdera batzuk egingo zaizkie taldean hausnarketa egin dezaten. Halaber, kontsumo arduratsua izan dadin herritarrek parte hartzeko moduren bat pentsa dezatela esango zaie ikasleei.

Materiala: 1.1. fitxa. Internet (informazio gehiago).

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

2 Jarduera: “Har ezazu parte aurrekontuan”

Deskribapena: Rol-jokoaren bitartez aurrekontu parte-hartzaileak lantzea proposatzen da. Ikasleek, taldeka, hezkuntza-komunitateko talde bat (familiak, irakasleak, zuzendaritza...) balira bezala jardungo dute. 2.1. fitxan adierazitako urratsei jarraituz, proposamen-zerrenda bat egingo dute ikastetxeko urteko aurrekontuan sartzeko. Ondoren, gela osoak zuzendaritza-taldearen papera hartuko du eta, jasotako proposamenetan oinarrituz, erabakiak hartzeko prozesua egingo dute.

Materiala: 2.1. fitxa, Internet.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.



1.1. Fitxa

Lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeen eta herrialde industrializatuena arteko diferentziak ezagutuko ditugu.

Merkatuan erosten diren produktuen prezioa bost zatitan banatzen da:

Ekoizlea:	Lehengaiak ekoizten duen pertsona: laboraria, artisaua...
↕	
Herrialde ekoizleak:	Ekoizten den herrialdeko gobernuak.
↕	
Bitartekariak:	Merkataritza-, garraio- eta inportazio-entresak. Transnazionalak.
↕	
Prozesatzaileak:	Lehengaiak prozesatzen dituzten fabrikak eta industriak.
↕	
Txikizkariak:	Denda eta merkatuetako merkatariak.

Bost eragile horiei buruzko informazio gehiago bila dezakezue.

Aukera ezazue produktu bat taldean dituzuen etiketatik. Horrekin egingo dugu lan.

1. Prezioaren zein zati geratzen da bost zati horietan?
2. Kalkula ezazue zein ehuneko jasotzen duen subjektu bakoitzak, horietako bakoitzari esleitu diotzen prezioaren arabera.

.....
Argibide batzuk...
.....


Txikizkariak eta herrialde ekoizleak ia ehuneko berdina eta proportzionala jasotzen dute bost zati egitean. Bitartekariak laborariak jasotzen dutena 3,5 aldiz jasotzen dute. Prozesatzaileak dira, bitartekarien ondoren, gehien jasotzen dutenak.

	Prezioa	%
Txikizkariak		
Prozesatzaileak		
Bitartekariak		
Herrialde ekoizleak		
Laborariak		

Taldetan jarri eta egin ezazue historia edo komiki bat inportatutako lehengaiekin egindako produktu industrializatuek egiten duten ibilbideari buruz. Erabil itzazue ehunekoak eta zenbakizko datuak.

Taldean pentsatzeko

- Aldera ezazue subjektu bakoitzari esleitu diozuen ehunekoa hauekin:



- Asko kosta al zaizue etiketak aurkitzea? Zuen ustez, zer esan nahi du horrek?
- Banaketa hori norentzat da onuragarria eta norentzat kaltegarria?
- Nola egin daiteke banaketa bidezkoagoa?
- Nortzuk aberasten dira gure kontsumoaren diruarekin?
- Zein kalte egin diezaiekegu beste pertsonen kontsumitzen dugunarekin?
- Zer egin dezakegu?

Gure kontsumoak ondorioak ditu. Horregatik, garrantzitsua da arduraz kontsumitzea, gure ekintzak eragingo dien pertsonen eskubideak babestuz.

Hona hemen besteen eskubideekiko arduraz jokatzeko munduan parte hartzeko ideia batzuk:

- Har ezazu parte Bidezko Merkataritzari: dela kontsumitzaile moduan, dela horri buruzko informazioa beste pertsona batzuei emanez, dela salmenta-postuetan parte hartuz.
- Erosi baino lehen, informa zaitez. Marka asko beren langileak lan-kondizio duinetan ez dituzten erpresenak dira.
- Behar duzuna baino ez ezazu erosi
-

2.1. Fitxa

Egin dezagun rol-joko bat...

- 1 Beste ezer baino lehen, hezkuntza komunitatea osatzen duten **eragile edo kolektiboak** identifikatu behar ditugu: familiak, ikasleak... Pentsatu horretaz.
- 2 Eragileak identifikatu eta gero, jar zaitezte taldetan. Talde bakoitzak eragile horietako baten rola bete behar du. **Azter itzazue** ikastetxearen baliabideak, instalazioak, pertsonala, ikasleen ezaugarriak, eskaintzen diren zerbitzuak... Eta, hortik abiatuta eta zuen taldearen interesen arabera, detektatu ikastetxearen benetako beharrak.
- 3 Egin ezazue **batzarra** ikastetxeko urteko aurrekontuan zuen ustez zein alderdi sartu beharko liratekeen aztertzeko, eta egin ezazue **proposamen-zerrenda** bat.
- 4 Aukera ezazue **kontseilari**-lanak egingo dituen zuen taldeko ordezkari bat. Pertsona horrek zuen proposamenak **kontseilari guztien batzarrera** eraman beharko ditu. Batzar horretan, bat datozen proposamenak eta ustez lehentasuna dutenak aukeratu dira.

*Talde bakoitzak aurkeztu dituen eta onartu diren proposamenen aurrekontu bat eskatuko du.
Kalkula ezazue zenbatekoa izan daitekeen horietako bakoitza.
Prezioak Interneten begiratu edo dendetan galde ditzakezue.*

Zerrenda badugu eta, orain, rolez aldatuko dugu...

Guztiok zuzendaritza-taldekoak gara. Ikastetxeko funtzionamenduak sortzen dituen gastu finkoetz gain (kontratutako langileak, argia, ura, telefonoa, mantentze-lanak...), 31.253 €-ko aurrekontua dugu aurtengo.

Zuzendaritza-taldeak lehentasunezko zatitza jo dituen behar batzuk eta horien kostua hauek dira:

- Komun bat minusbaliatu fisikoentzat egokitzea: 4.207,08 €
- Amatasun-baja bat betetzeko irakasle bat kontratatzea: 7.780,07 €
- Eskola-materiala: material suntsigarria, liburuak, 3 ordenagailu: 5.409,10 €



Daukagun dirua, zuzendaritza-taldearen lehentasunak eta aurrekontu parte-hartzaileen kontseiluak aurkeztutako proposamenak kontuan izanik, pentsa ezazue, taldeka, proposatutako ekimen guztiei, ahal dela, erantzunen bat emateko modua.

Egin ezazue grafiko bat ikasturteko aurrekontuaren banaketa ehunekotan adieraziz eta kontzeptu bakoitza aurrekontu-sail globalagoetan bilduz.

Pentsatzeko...

- Nola sentitu zarete, lehenengo, proposamenak egiten dituzten eragile gisa eta, gero, erabakiak hartzean, ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kide moduan?
- Zuzendaritza-talde gisa, zertan oinarritu zarete proposamen batzuk onartu eta beste batzuk baztertzeko?
- Zuen ikastetxean erabiltzen al dira aurrekontu parte-hartzaileak?
- Zer iruditzen zaizkizue parte hartzeko proposamen eta era moduan?
- Zuen ikastetxean parte hartzeko modu hau erabiltzea bideragarria dela iruditzen al zaizue ?
- Nola antolatuko zenituzkete aurrekontu parte-hartzaileak zuen ikastetxean?
- Zuen ustez zein beste arlotan izan daiteke interesgarria aurrekontu parte-hartzaileak erabiltzea?
- Era honetako ekimenak ezagutu nahi badituzue, web orri hauetan sar zaitezketekete:
 - www.librexpresion.org/story/2002/9/23/142210/277
 - [www.lacerca.com/Local%202002/pagina\(19-12-02\)-3.htm](http://www.lacerca.com/Local%202002/pagina(19-12-02)-3.htm)
 - www.motivados.org/textos/txtdemocra/preparticip.rtf

Natur zientziak



ALBOAN

Helburuak

- HIES gaixotasuna ezagutzea, transmisio-modu batzuei buruzko ideiak desmitifikatuz.
- Osasuna hobetzeko, norbera ezagutzeko teknikak erabiltzea eta gaitasun, baliabide eta trebetasun sozialak garatzea.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan aktiboki parte hartzea.
- Jarrera arduratsua eta kritikoa erakustea droga-kontsumoaren eta osasunaren kalterako jardueren iradokizunen aurrean.
- Droga-mendekotasunaren konplexutasunaz jabetzea mendekotasun-prozesuaren eraginak eta ondorioak aintzat hartuz.
- HIESak kutsatutako pertsonekin jarrera positiboa izatea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Ezagutu nuenean 16 urte nituen”

Deskribapena: Freddie Mercury-ren testua irakurritakoan, irakasleak drogekiko mendekotasun-prozesua eta izan ditzakeen ondorioak azalduko ditu laburki. Ondoren, ikasleak taldeka jarriko dira eta irakurketak sortutako sentsazioez hitz egingo dute. Gero, droga-mendekotasunaren arazoa, zergatiak eta gizartean, familian eta pertsonalki dituen ondorioak aztertuko dituzte. Ariketa amaitzeko, taldeetan esandakoa bateratuko dute eta droga-mendekotasunaren gainean eztabaidatuko dute, alternatiba posibleak proposatzeko eta arazoa ekiditeko eta/edo lantzeko.

Materiala: 1.1 fitxa.
Dinamika: Taldekakoa.
Denbora: 50 minutuko saio bat.

2 Jarduera: “Zer dakigu HIESari buruz?”

Deskribapena: HIESari buruz aurretik dituzten ideiak detektatzeko ariketa txiki batekin ekingo diogu. Horretarako, galdera batzuk proposatuko ditugu ikasleek taldeka eztabaida ditzaten (ikus 2.1 fitxa). Ondoren, irakasleak HIESa zer den azalduko du, kutsatzeko eta prebentziorako bideak zein diren.

Hori azaldutakoan, HIES gaixotasuna kasu praktikoa batean oinarrituz aztertzeke eskatuko zaie. Ikasleek, talde txikitan, dilema irakurriko dute, eta arazoa proposatutako rolean oinarrituz konponduko dute. Azkenik, enpatia-ariketa bat egingo dute. Ikasleak kasuan parte hartzen duten pertsona eta kolektiboen paperean sartuko dira arazoa beste ikuspuntu batzuetatik aztertzeke.

Materiala: 2.1. eta 2.2. fitxak.
Dinamika: Taldekakoa.
Denbora: 50 minutuko saio bat.



1.1. Fitxa

EZAGUTU NUENEAN 16 URTE NITUEN

Festa batean ezagutu genuen elkar, nire laguna zela zioen 'morroi' baten bitartez. Ikustearekin bat maitemindu nintzen. Zoratu egiten ninduen. Nire maitasuna hainbestekoa zen, ezin bainuen bera gabe bizi.

Baina maitasun debekatua zen. Nire gurasoek ez zuten onartu. Eskolatik bota egin ninduten eta ezkurtuan ikusten hasi ginen. Ezin izan nuen gehiago jasan, ordea, zoratu egin nintzen.

Maite nuen, baina ez zen nirea. Ezin nien utzi berarengandik banantzen.

Nik maite nuen: autoa hondatu nuen, etxean dena apurtu nuen eta ia nire arreba hil nuen. Zoratuta nengoena, behar nuen.

Gaur egun, 39 urte ditut; ospitale batean nago, ez dut ezertarako balio eta bakarrik hilko naiz, nire gurasoek, lagunek eta berak bakarrik utzita.

Beraren izena?

Kokaina

Berari zor diot nire maitasuna, bizitza, hondamena eta heriotza.

Freddie Mercury

Taldean hausnartzeko

- Zer sentazio sortu dizue testuak?
- Azter ditzagun droga-kontsumoaren zergatiak eta ondorioak eta asma ditzagun irtenbideak:

Ikuspegia	Zergatiak	Ondorioak	Irtenbideak
Soziala			
Familiarena			
Pertsonala			

2.1. Fitxa

Zer dakigu hiesari buruz?

Zer dakigu IHESari buruz?

ZER DA IHESA?

NOLA KUTSATZEN DA?

NOLA PREBENI DEZAKEGU?

Argibide batzuk

HIESa, Hartutako Immuoeskasiaren Sindromea, Giza Immuoeskasiaren Birusak (GIB) sortzen du eta gorputzeko defentsak suntsitzen ditu.

Honako hauen bidez kutsatzen da:

- Odol-transfusioak, xiringak, etab.
- Bagina-fluxua eta semena.
- Plazentak fetuari.

Honako hauen bidez ez da kutsatzen:

- Malkoak.
- Amaren esnea.
- Txistua

Prebentzio-bideak:

- Xiringak ez partekatzea eta kutsatutako odolaren transfusioak saihestea.
- Preserbatiboak erabiltzea.
- Birusa duten emakumeak haurdun ez geratzea.



2.2. Fitxa

IRENEREN KASUA

Irenek, DBHko laugarren mailako ikasleak, auto-istripua izan du eta odol-transfusioa egin behar izan diote. Erabilitako odola HIESaren birusak kutsatuta zegoen. Ikastetxeko zuzendaritzak irakasleei, ikasleei eta gurasoei jakinarazi die. Egoera horren aurrean, hainbat erreakzio daude. Guraso gehienek beraien haurrak kutsatzeko beldurra dute eta Irene ikastetxera ez joatea eskatzen dute. Ireneren ikaskide asko urrundu egiten dira berarengandik.

Zuek Ireneren ikastetxeko irakasle-taldea zarete. Zuzendariak gai honi buruz hitz egiteko deitu zaituzte, izan ere, guraso askok ez dituzte seme-alabak eskolara bidaltzen eta, Irene botatzen ez badute, haurrak ikastetxez aldatuko dituztela esan dute. Gainera, ikasle gehienak aztoraturik daude berria jakin zutenetik eta Ireneri ezikusi egin eta mespretxuz tratatzen dute. Bestalde, kontuan hartu behar da Irene botatzeak prentsan izango lukeen oihartzuna

Egoera kezagarria da eta erabaki bat hartu behar da.


Taldekako lana

- Aztertu egoera konpontzeko zein irtenbide dauden.
- Zein abantaila eta eragozpen ikusten dizkiozue proposatutako aukera bakoitzari?
- Zer erabaki duzue azkenean?
- Enpatia-ariketa bat egingo dugu eta tartean dauden pertsona edo taldeen paperean sartuko gara:
 - Nola sentituko zinatekete Irene bazinete?
 - Eta ikastetxeko ikasleen gurasoen lekuan bazeundete?
 - Eta Ireneren gelako ikaskide izanez gero?
- Ezagutzen duzue HIESa duen inor?
- Herritar gisa, zer egin dezakegu pertsona horien diskriminazioa saihesteko?
- Zer ari dira egiten zure auzoko elkarteak?
- Pertsona guztiok eskubide eta betebeharrak berdinak baditugu, ez genuke batu behar pertsona horien esku-bideak errespetarazteko?

Hezkuntza plastikoa eta bisuala



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Norberaren lanaren erantzukizunari buruz hausnartzea, taldeko lanaren onura edo kalte gisa.
- Lana guztien artean egiteak dituen abantailak aztertzea.
- Azken emaitza prozesu osoaren bakarkako lanaren batura gisa balioztatzea.
- Bizikidetasuna sustatzea, elkarrizketaren bidez eta norberaren eta besteen ideiak errespetatuz.
- Konposizioaren funtzio adierazlea balioztatzea.

Jarduera

1 Jarduera:

“Puzzleko nire pieza”

Deskribapena:

Puzzle gisako horma-irudi handi bat egitea da asmoa. Horma-irudia egiten hasiko dira eta eduki grafikoa zein izango den talde osoaren artean erabakiko dute. Ondoren, horma-irudia taldeko ikasle-kopurua adinako zati berdinetan zatituko da. Ikasle bakoitzak puzzlearen edo horma-irudiaren zati bat hartuko du eta neurri bikoitzean, hirukoitzean... egin beharko du berriro, lortu nahi den tamainaren arabera. Ikasleek eskalari eta proportzioei buruzko gutxieneko ezagutza behar dute.

Garrantzitsua da piezak beraien artean bat etortzea neurri, testura, forma eta koloreei dago-kienez. Horretarako, alboko piezak dituzten pertsonak antolatu egin beharko dira eta beste alderdi batzuei buruzko erabakiak hartu beharko dituzte emaitza koherentea lortzeko.

Materiala:

Margoak, erregelak, guraizeak, etab.

Dinamika:

Banakakoa eta taldekakoa.



Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Parte-hartzea prozedura gisa eta kontzeptu gisa lantzeko, ikasleei horma-irudia parte-hartzeari buruzkoa izatea proposatu. Lanean hasteko, girotzeko posterrak ikus ditzakete, iku-
rren bidez transmititzen duten mezua interpretatzeko. Ikasleek emandako ideiak aztertu-
takoan eta posterrak ikusitakoan, horma-irudiaren edukia zein izango den erabakiko dute,
eta parte-hartzeari buruzko posterren bilduma osatuko dute.

2 Jarduera:

“Zatika”

Deskribapena: Taldeka collagea egingo dute eta konposizioaren gaia aztertuko dute. Aurrez, konposizio-
aren alderdiak eta adierazpenerako dituen aukerak landuko dituzte, baita konposizio-eske-
ma garrantzitsuenak eta horien jokabideak ere sentsazio desberdinak eragiteko: simetria,
triangeluarra, zirkularra...

Ikasleak hiru edo lauко taldeetan banatuko dira gaia, helburua, konposizioa, kolore nagu-
siak eta lanak amaieran izango duen itxura erabakitzeko.

Materiala: Aldizkari eta egunkarietako zatiak, argazkiak, marrazkiak, etab.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.


Iradokizunak: Collagea parte-hartzeari buruzkoa izatea proposa daiteke. Ariketa egindakoan, taldeka,
collagea egiteko prozesua nolakoa izan den esan dezakete: pertsona guztiek parte hartu
duten, lana nola antolatu duten, taldean lan egiteak zein alderdi positibo dituen, zein ez
diren hain positiboak...



Hizkuntza eta literatura



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Komunikabideak herritarrek parte-hartzeko bide gisa ezagutzea.
- Komunikabideek herritarrei bidegabeko kausak salatzeke eskaintzen dizkieten saioetan parte hartzea eta haiek aldatzeko alternatibak proposatzea.
- Egunkariko atalak ezagutzea eta kazetaritzako hizkuntza ondo erabiltzea.
- Komunikabideekiko eta eskaintzen dituzten aukerekiko jarrera irekia eta interesa erakustea.
- Komunikabideek herritarren iritzien eragile bideratzaile gisa duten eraginaz eta balioaz jabetzea.

Jarduerak

1 Jarduera:

“Komunikabideen bidez”

Deskribapena:

Komunikabideek herritarrei saioak eskaintzen dizkiete hainbat gairen inguruan beraien iritzia, kezka eta eskaerak jakinarazteko. Hain zuzen, prentsa idatziak herritarren esku uzten du zuzendariarentzako gutunen atala, iritzia eman dezaten. Irrati eta telebistek ere herritarrei programa batzuetan parte hartzeko hainbat modu eskaintzen diete.

Ariketa hasteko, ikasleei komunikabideek parte hartzeko eskaintzen dituzten bideei buruz hausnartzeko eskatuko zaie. Zein saio daude? Parte hartzeko zein aukera ematen dituzte? Ondoren, komunikabideak erabiltzeko proposatuko zaie gaurkotasuneko gai bati buruz iritzia emateko. Horretarako, gizarteko gai batzuk proposatuko dira: gatazka armatuak, aberastasunaren bidegabeko banaketa, ingurumenaren poluzioa... Ikasgelan azterketa bat egingo dute ikasleak gehien kezkatzen dituen gaia zein den erabakitzeke. Erabakia hartutakoan, gela seiko taldeetan banatuko da beraien iritzia komunikabideetara iritsarazteko:

- Bi taldek zuzendariarentzako gutuna idatziko dute prentsarako.
- Beste bi taldek iritzi-artikulua idatziko dute telebistako saio batean aurkezteko.
- Azken bi taldeek ere iritzi-artikulua idatziko dute, baina irrati-saio baterako.

Talde guztiek landu behar duten gaiari buruzko informazioa eskuratu beharko dute aurrena prentsa, Internet eta abarren bidez. Gero, dokumentua idatziko dute alderdi hauek argi azalduz: gaiaren planteamendua eta testuingurua, horren inguruan dagoen iritzia eta bideratutako ekintza-proposamenak (herritarrei, agintari politikoei,...).

Azkenik, talde bakoitzak bere idazkia dagokion komunikabidean argitaratzeko modua aztertuko du eta parte-hartze mota hori zein irrati- edo telebista-saiotan sartzeko modukoa den ere aztertuko du.

Materiala:	Internet.
Dinamika:	Taldeakakoa.
Denbora:	50 minutuko bi saio.

2 Jarduera:

“Gure ikastetxearen iritzia”

Deskribapena: Aurreko ariketan, komunikabideetan komunikatzeko eta parte hartzeko aukerak aztertu dira. Prentsa, irrati eta telebistaren bidez hainbat iritzi eman daitezke eta salaketa, iradokizun, protesta edo proposamen baten eragina handiagoa izan liteke.

Parte hartzeko saio horiek ikastetxean eskaintzea proposatuko zaie ikasleei, eskolako argitalpen baten lehen alea sortuz: hainbat atal edukiko dituen egunkaria, aldizkaria... Atal horiek ikasgela guztiaren artean erabakiko dituzte. Ikastetxean argitalpenik baldin badago, horren bidez egingo da, parte hartzea bultzatuz. Lan-talde bakoitza argitalpenaren atal batez arduratuko da. Prozesu guztia irakasleak koordinatuko du eta argibide egokiak eta beharrezko azalpenak emango ditu.

Garrantzitsua da ikasleei, irakasleei, gurasoei... parte hartzeko gune ireki bat eskaintzea. Parte-hartze hori nola bideratu eta jaso daitekeen aztertuko dute; adibidez, iradokizunen gutunontziaren bidez.

Materiala: Egunkari bat egiteko behar dena: eskolako materiala, argazki-kamera, grabagailua, ordenagailuak...

Dinamika: Taldekakoa.

Iradokizunak: Ariketa egiteko beste modu bat beste euskarri bat erabiltzea da, helburu eta estrategia berari eutsita. Horrela, irrati- edo telebista-saio bat egin daiteke.


Ariketa amaitutakoan, ikasleak lan hori egiten jarraitzera bultzatu ditzakezu; argitalpenen kasuan, ale gehiago egitera, eta, irrati edo telebistaren kasuan, saio gehiago egitera. Esperientzia horrekin aurrera jarraituko duen erredakzio-talde finko bat sortzeko proposa daiteke.

Hezkuntza-proiektu honekin batera aurkezten den zentroen arteko proposamenean ere aurkez ditzakete berriak.

Atzerriko hizkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Mintzatutakoa eta idatzitakoa ulertzea.
- Atzerriko hizkuntzan hitzeko eta idatzizko mezuak sortzea.
- Ingelesez eta frantsesez komunikazio-trebetasunak garatzea eta komunikazio-prozesuetan egoki parte hartzea.

Jarduerak

1 Jarduera:

“Imagine”

Deskribapena: Ikasgelan azkenaldiko musikaren klasiko bat entzuten da. John Lennon-en Imagine, kantu hutsa baino gehiago da, munduko himno bihurtu delako. Ikasleek arretaz entzuten duten bitartean, saia zaitez abestiaren letra transkribatzen. Kantua bi edo hiru aldiz entzuten da eta ikasleak taldeka biltzen dira bakoitzak jasotako letra besteekin egiaztatu eta abestia osatzeko. Zer esaten digu Lennon-ek abesti honetan? Zein mezu ematen digu?

Ondoren taldetan bilduta hitz egingo dute ikasleek munduak nolakoa izan behar duenaz eta haiek amesten duenaz eta horretarako behar denaz. Azkenean, abestirako beste bi ahapaldi asmatuko dituzte. Talde bakoitzak gainerakoei asmatu dituen bi ahapaldiak abesten irakatsiko die.

Materiala: 1.1. fitxa, musika jotzeko aparatua, "Imagine" abestia.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.



2 Jarduera:

“Motiver”

Deskribapena: Ikasgelan Okzitaniako Tolosako Motiver taldearen musika entzun. Ikasleei arretaz entzutea eskatzen zaie, eta gero, ondoan doan matrizea betetzea eskatzen da, honako galdera hauei erantzunez: nori buruz ari da hizketan? Noren kontra mobilizatzen dira? Zergatik? Etab. Gero talde honi buruz Interneten informazioa bilatzea eskatzen zaie. Honako helbi-deak proposatzen dira:

<http://www.zebda.fr/openpopup.html#>

<http://fr.music.yahoo.com/biographies/zebda.html>

Bilaketa, ondoan dauden galderen bidez orienta dezakete; parte hartzeko dituzten moduei buruzko informazioa osatu ere egin dezakete.

Materiala: 2.1. fitxa, musika jotzeko aparatua, "Motiver" abestia.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

1.1. Fitxa

IMAGINE

Imagine there's no heaven
It's easy if you try
No hell below us
Above us only sky
Imagine all the people
Living for today...

Imagine there's no countries
It isn't hard to do
Nothing to kill or die for
And no religion too
Imagine all the people
Living life in peace...

You may say I'm a dreamer
But I'm not the only one
I hope someday you'll join us
And the world will be as one

Imagine no possession
I wonder if you can
No need for greed or hunger
A brotherhood of man
Imagine all the people
Sharing all the world...

You may say I'm a dreamer
But I'm not the only one
I hope someday you'll join us
And the world will live as one

2.1. Fitxa

Motiver

Spécialement dédicacé à tous ceux qui son motivés
Spécialement dédicacé à tous ceux qui ont resiste, par le passé
Ami entends-tu le vol noir des corbeaux sur nos plaines
Ami entends-tu les cris sourds du pays qu'on enchaîne
Ohé, partisans ouvriers et paysans c'est l'alarme
Ce soir l'ennemi connaîtra le prix du sang et des larmes

(Refrain)

Motivés, motivés
Il faut rester motivés!
Motivés, motivés
Il faut se motiver!
Motivés, motivés
Soyons motivés!
Motivés, motivés
Motivés, motivés!

C'est nous qui brisons les barreaux des prisons pour nos frères
La haine à nos trousses et la faim qui nous pousse, la misère
Il est des pays où les gens au creux des lits font des rêves
Chantez compagnons, dans la nuit la liberté vous écoute

(au Refrain)

Ici chacun sait ce qu'il veut, ce qu'il fait quand il passe
Ami si tu tombes un ami sort de l'ombre à ta place
Ohé, partisans ouvriers et paysan c'est l'alarme
Ce soir l'ennemi connaîtra le prix du sang et des larmes

(au Refrain)

On va rester motivé pour le face à face
On va rester motivé quand on les aura en face
On va rester motivé, on veut que ça se sache
On va rester motivé...

(au Refrain)

On va rester motivé pour la lutte des classes
On va rester motivé contre les dégueaulasses

Motivés, motivés



Un exemple de participation sociale, politique... en France

1 Écouter la chanson “Motiver” du groupe Zebda, lire la parole, analyser les idées:

Qui	Contre qui	Pourquoi	Sur quelles réalités

2 Chercher des informations à propos du groupe sur Internet et dans l’article de presse:


- a. Pourquoi ce nom?
- b. Qui sont-ils?
- c. D’où viennent-ils?
- d. Qu’est-ce qu’ils font, proposent?
- e. Comment participent-ils dans la vie sociale et politique?
- f. Pourquoi?

3 Pour élargir, mettre en relation avec: Vitecri, Tactikollectif et ça bouge au nord.

Gizarte-zientziak



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Taldeka, ikerketa edo azterketa deskribatzaileak prestatzea eta egitea.
- Ingurune hurbileko baliabide sozialak, kulturalak eta ekologikoak eta gabeziak aztertzea, jasotako informazioa sistematizatuz.
- Ingurunea, bere ezaugarriak eta eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzeko interesa erakustea.
- Guztientzako helburuak lortzeko talde-lanean koordinatzeak, estrategiak diseinatzeak eta ekintza antolatuak egiteak duen garrantzia aintzatestea.

Jarduerak

1 Jarduera:

“Proiektatzen”

Deskribapena: Ikasleei proiektuaren planteamendua, garapena eta jarraipena egiteko eskatuko zaie. Aurrena, beharrezkoa da zein proiektu egingo den erabakitzea. Horretarako, gutxi gorabehera bosteko taldeetan auzoko edo herriko errealitatea aztertuko dute. Herriak dituen baliabide kulturalak eta gabeziak edo hutsuneak aztertuko dituzte. Azterketa egindakoan, talde guztiek jasotako informazioa bateratuko da. Talde bakoitzak aurkeztutakoa balioetsi ondoren, zein proiektu gauzatuko den erabakiko dute.

Gelak proiektuaren garapenaren itxura egingo du. Lana errazago eta eraginkorrago egiteko, batzordeak sortuko dira (errealitatea aztertu duten taldeekin bat etor daitezke) eta bakoitzak funtzio bat izango du: informazioa bilatzea; parte hartzeko bideak bilatzea; proiektua aurkezteko bideak; tartean dauden pertsonekin harremanetan jartzea; ebaluazioaren helburuak, bideak eta uneak deskribatzea.

Lana eraginkorra eta koherentea izan dadin, garrantzitsua da lan-batzordeak koordinatuta egotea eta parte hartzeko bide egokiak ezartzea.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko hiru edo lau saio.

Iradokizunak: Proiektua garatzeko liburu hau erabil dezakezue: *Ochenta herramientas para el desarrollo participativo*, Frans Geilfus. Colección Caja de Herramientas 22. zk., Servicio Jesuitas a Refugiados, Kolonbia. 1996.



2 Jarduera:

“Baliabideen direktorioa”

Deskribapena: Ariketa honen bidez, 1. jarduetan egindako lana osatu nahi da. Ikasleei kalera irteteko eskatuko diegu, baina ez gabeziak detektatzeko, herrian zein kultur elkarte eta elkarte sozial dauden jakiteko baizik. Azken finean, helburua baliabideen direktorio bat osatzea da.

Herria auzo edo distritutan banatuko dugu eta gela taldetan. Talde bakoitza auzo jakin bateko elkarteak ikertzeaz arduratuko da. Azkenik, talde bakoitzak jaso duen informazioa emango du eta direktorioa sortzeko irizpideak erabakiko dituzte.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

1.1. Fitxa

*Ezagutzen dugu bizi garen herria?
Badakigu zein baliabide eta behar dituen?
Hori ikertzea proposatzen dizuegu*

.....
Ekin aurretik...
.....

Egin dezagun gure herriko **errealitateari buruzko analisisa**. Taldeka, kalera irtengo gara zein behar dauden detektatzeko.



.....

Analisia egindakoan...

.....

Erabakiak hartzeko unea iritsi da. Talde bakoitzak ikerketaren ondoren lortu dituen ondorioak azalduko ditu ikasgelan. Ondoren, talde guztiek detektatu dituzten beharrei buruz hitz egingo duzue eta adostasun batera iritsi beharko duzue zein proiektu egin eta bultzatuko duzuen zehazteko.

.....

Has gaitezen lanean...

.....

Proiektua garatzen hasteko garaia da. Lana errazteko eta eraginkortasun handiagoa lortzeko, **antolatu** egingo gara. Lan-batzordeak sortu. Batzorde bakoitzak zeregin bat izango du. Kontuan izan garrantzitsua dela koordinatuta egotea eta informazioa erraz eta azkar transmititzea. Azter ezazue prozesu osoa koordinatzeko pertsona bat edukitzeko aukera.

Batzorde bakoitzak honako lan hauek egin ditzake:

- Proiektuaren **garapen-plana** diseinatu (bideak, estrategiak...) eta jarraipena egin.
- Proiektuaren **helburuak** deskribatu eta garatzeko uneak eta **ebaluazio-irizpideak** zehaztu.
- **Informazioa bilatu**. Zergatik dago gabezia hori? Arazo hori konpontzeko ekintza antolatuak egin dira? Badago hori errebindikatzeko duen elkarerik? Beste herri edo auzoetan, zer egin dute horrelako arazoak konpontzeko?
- **Parte hartzeko bideak bilatu**. Zein pertsona, talde edo erakundek parte har dezake proiektuaren garapenean? Nola har dezakete parte proiektuan? Proiektua zein bideren bidez aurkez daiteke? Zein instantziari?
- Arazoan konprometitu dauden talde edo kolektiboekin **harremanetan jarri**. Proiektuaren bozera-maileak izan.
- Bideak eta baliabideak eskaini. **Logistika**.

AURRERA!

Prozesuari buruzko hausnarketa...

- Nolakoa izan da proiektuaren garapena? Ongi koordinatu zarete?
- Zein zailtasun aurkitu dituzue prozesuan?
- Helburu komuna lortzeko antolatzea beharrezkoa dela uste duzue?
- Nolakoa izan da parte-hartze pertsonala? Eta batzordeen lana?
- Egin ezazue lanari buruzko azterketa.



2.1. Fitxa

Gurasoen elkarteak, bizilagunena, kaltetutako pertsonena, fundazioak, GKEak...

Funtzio zehatzak dituen helburu baten inguruan antolatutako hainbat talde daude gure gizartean. Zeintzuk daude gugandik hurbilen?

Beharbada talde asko ez ditugu ezagutuko, gure herrian, gure auzoan egon arren. Haiek ezagutzea kome-niko litzateke, zer egiten duten eta zein helburu dituzten jakitea, nola antolaturik dauden... Gainera, hobea izango litzateke guk ezagutzeaz gain komunitate osoak ezagutzea zein baliabide dituzten. **Kultur eta gizarte elkarten direktorioa** sortzea proposatzen dizuegu.

Elkartu taldeetan eta banatu zuen herria auzo edo distritutan. Talde bakoitza eremu horietako bat azter-tzeaz arduratuko da.


Urratsak

- 1 Informa** zaitzte zuen auzoan dauden elkarteei buruz eta sailka itzazue jarduera-motaren arabera eta zeini zuzendurik dauden kontuan hartuta.
- 2 Bisita itzazue** elkarte guztiak eta **elkarrizketatu** elkarte bakoitzeko kide bat.
- 3** Lortutako erantzunekin bete ezazue aurrez prestatutako **inprimakia**. Inprimaki hori ikasgelan onartuta egongo da (talde guztiek inprimaki bera erabiliko duzue). Galdera-sortan honako hau jar dezakezue: *elkartearen izena, helbidea, harremanetarako pertsona, helburuak, onuradunak, jarduera nagusia, boluntarioekin egiten duten lana...*
- 4 Bateratu** taldeka bildutako informazioa.
- 5 Zehaztu** direktorioa egiteko **irizpideak**: informazioa antolatzea, diseinua, estetika...
- 6 Direktorioa egin**.
- 7 Zabaldu** zuen lana. Zuen herrirako tresna erabilgarria izan daiteke. Erabaki egindako lana zein lekutan zabaltzea komeni den.

Musika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Musika-lanak sormen artistiko gisa aztertzeo gaitasuna garatzea eta beraien erabilera soziala eta helburu adierazgarria ulertzea.
- Musika-lanak aktiboki eta kontzienteki entzutea eta atsegin izatea, bai komunikatzeko bide gisa eta bai aberastasun kulturalaren eta plazer pertsonalaren iturri gisa ere.
- Musika-hizkuntzaren oinarriko elementuak ezagutzea aztertu, interpretatu eta konposatu ahal izateko.
- Taldekako musika-jardueretan parte hartzea jarrera irekia eta arduratsua erakutsiz eta elkarrizketa bul-tzatuz.
- Musikak gizartean duen papera ikertzea eta hari buruz hausnartzea, erabilera eta kontsumoari dagokio-nez jarrera kritikoa eta sentikortasuna erakutsiz.

Jarduerak

1 Jarduera:

“Belarriak erne”

Deskribapena: Ikasleei lehendabizi, Bonberenea taldeari buruzko testu bat irakurtzeko eskatuko zaie, eta gero, "oztopo guztien gainetik bonberenea" diska buldumako Inoiz taldearen Irudimena abestia entzuteko eskatuko zaie. Dokumentua irakurri eta abestia entzun ondoren, ikasle-ek, taldeka, beraien eduakia aztertuko dute eta irakurketak, musikak, soinuak eta erritmo-ak eragin dizkieten sentazioei buruz hitz egingo dute.

Materiala: Erreproduzitzaila, abestiaren CDa eta 1.1 fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

2 Jarduera:

“Konposa itzazu”

- Deskribapena:** Musika tresna egokia izan daiteke besteak gizartean parte hartzera bultzatzeko edo justiziagatik mobilizatzeko. Ikasleei konposaketa bat egiteko eskatuko zaie. 2.1. fitxan, Deabruak Teilatuetan taldearen Gezurra da abesti baten hitzak agerzen dira. Taldeka, hitzak irakurriko dituzte esanahia ondo ulertzeko, eta doinu bat konposatuko dute hitz horientzat. Hitzek transmititzen duten mezua indartu beharko du musikak. Azkenik, konposizio guztiak entzungo dituzte.
- Materiala:** Beharrezko musika instrumentua, 2.1 fitxa.
- Dinamika:** Taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko bi saio.
- Iradokizunak:** Ariketa hau egiteko, parte-hartzea bultzatzen duten beste hitz batzuk ere erabil daitezke. Beste aukera bat ikasleek abesti osoa (hitzak eta musika) konposatzea da.

3 Jarduera:

“Gure musika”

- Deskribapena:** Aurreko ariketak egindakoan, talde eta kantautore askok parte-hartzea sustatzen duten abestiak konposatu dituztela argi geratuko da. Gai horri buruzko beste hainbat abesti egongo dira segur aski. Ikasleei herritarren parte-hartzea bultzatzen duten abestiak bilatzeko eskatuko diegu. Arreta bereganatzeko abesti-formatuan helarazitako dei laburrak. 1. eta 2. jardueretan landutako abestiak idatzi dituzten artistak har ditzakete abiapuntu gisa, gai horri buruz abesti gehiago idatzi dituzten jakiteko.
- Ikerketa amaitzeko, ondorengo galderen inguruan hausnar dezakete: Musikaren arloa sentikortuta eta konprometituta dago mundu bidezkoagoa sortzeko? Herritartasun arduratsua sortzera bideraturik dago? Zein mezu-mota transmititzen ditu musika komertzialak?
- Materiala:** Internet.
- Dinamika:** Bakarkakoa, taldekakoa.
- Denbora:** 50 minutuko bi saio.
- Iradokizunak:** Gaur egungo musikari buruzko web orri batzuk bisita daitezke:
- www.cantautores.org
 - www.geocities.com/elrincondelcantautor/
 - www.iespana.es/guitarra/Cantautores_guitarra.htm
 - www.musica7.com/es/
 - <http://directory.google.com/Top/World/Euskara/Kultura/Musika/MP3/>
 - http://directory.google.com/Top/World/Euskara/Kultura/Musika/Talde_eta_Bakarlariak/

1.1. Fitxa

Abesti bat entzundakoan inoiz pentsatu duzu zuretzat idazia izan dela? Ez zaizu inoiz iruditu abesti batzuen hitzak zuri hitz egiten dizutela? Eta ez zaizu inoiz gertatu ulertzen ez duzun hizkuntza batean entzundako abesti baten doinuak bibraraztea eta musikaren bidez zuri hitz egiten ari zaizula iruditzea?

Ikus dezagun zein sentsazio izaten dugun testua irakurri eta abestia entzun ondoren. Hitzetan ipiniko dugu arreta eta hitz horiek, doinuak, erritmoak ...zein sentsazio sortzen digun ikusiko dugu.

Bonbereneari buruzko testua:

Oztopo guztien gainetik hasi zen bonberenea 1997ko abendu hartan. Denok genekien, bonberoen egoitza izandako etxe eder hura botatzeko alkate jaunak zuen gogo. Hala ere, auzolanean eta giro onean igaro genituen bertan egondako zazpi egun haiek, zortzigarren egunean etxea gure muturren aurrean birrindu zuten arte. Hamahiru lagun identifikatu eta lau atxilotu zituzten, baina ezin izan zuten egun haietan bildu genuen indarra eta adiskidetasuna bota. Orduezkero, okupatutako etxe guztietan mantendu dugu bonberenea izena, han bihurtu baikenuen lehenengo bileretan sortutako ilusioa egiazko sormen eta ekintza.

Oztopo guztien gainetik jarraitu genuen eta beste bi etxe okupatu genituen denbora gutxian, baina, nonbait, gure apostua ez zen udaletxearen gustoko, eta segituan botatzen gintuzten. Gure ekintzak kalean eta ahal zen tokietan egiteari eutsi genion arren, espazio baten beharra ikusten genuen gure proiektuak aurrera egin zezan. Azkenik, gaur egungo Bonberenea etxea okupatu genuen 2000. urtean eta jendearen inizatibak,

sormena naiz elkarkidetza lantzeko espazio ezinhobea da guztiontzat.

Oztopo guztien gainetik bonbereneak argi dauka gizarte kontsumitzaile harrapakari honen baloreak aldatzeko, norbanakoak izaera aktibo bat landu behar duela bere ingurune sozio-kulturalean. Gaur egun, gero eta beharrezkoagoa da espazio autogestionatu eta asanblearioak sortzea, pentsamentu bakarraren imperioak etengabe saltzen digun pasibitate eta konformismoari aurre egiteko.

Insumisioaren eta auzolanaren bidea aukeratzen dugunok ordea, ez gara instituzioen eta beraien burokraziaren eskemetan sartzen eta hauexek dira bonberenearen geroa kilinka jarri nahi dutenak berriro ere.

Eskuartean duzun konpakto honek orain arte egindako ibilbidearen oroigarri xume bat izan nahi du eta geroan atxikirik ditugun ilusioen pizgarri.

Oztopo guztien gainera bonberenea cd bildumatik hartutako INOIZ taldearen abesti bat:

IRUDIMENA

Etxe honen aterpean aurkitzen da gazteria solasean, lanean, ideiak martxan jartzen. egunero biltzen gara neska mutil ezberdinak kolore artean, gure gogo ta nahiak biltzen. ez ez dute botako!! ez ez dute botako!!!! ez ez dute botako!! ez ez dute botako gaztetxea!!!! esfortzu guztien indarraz atera zen hazia, ta gure fruitua Bonberenea izena du. ez al dizu pena ematen hainbeste urtez martxan, gure lorpen guztiak kontutan ez hartzea. ez ez dute botako!! ez ez dute botako!!!! ez ez dute botako!! ez ez dute botako Bonberenea!!!!

gurea da!!
gurea da!!
gurea da!!
gurea da!!
gurea da!! gurea da!!
gure irudimena egunero berritzen, lagun artean magia sortzen.
ez digute kenduko gure lekua, maite dugulako Bonberenea!!!!
ez ez dute botako!! ez ez dute botako!!!!
ez ez dute botako!! ez ez dute botako gure etxea!!!!!!!!!!!!!!

Hitz egin dezagun hitzei buruz...

- Irakurri arretaz testuko eta abestiko hitzak eta laburtu gaia esaldi batean edo bitan.
- Bai testuan, bai abestian nork hitz egiten du edo nork hitz egiten duela ematen du, eta nori dago zuzendurik?
- Zer eskatzen da bietan?
- Azaldu lerro hauen esanahia:
 - Auzolana.
 - Gizarte kontsumitzaile harrapakari honen baloreak aldatzeko, norbanakoak izaera aktibo bat landu behar duela bere ingurune sozio-kulturean. Gaur egun, gero eta beharrezkoagoa da espazio autogestionatu eta asanblearioak sortzea, pentsamentu bakarraren imperioak etengabe saltzen digun pasibitate eta konformismoari aurre egiteko.
 - Ideiak martxan jartzen. egunero biltzen gara neska mutil ezberdinak kolore artean.
 - Gure gogo ta nahiak biltzen, esfortzu guztien indarraz atera zen hazia, ta gure fruitua.

Hitz egin dezagun doinuari buruz...

- Entzun abestia arretaz, doinua, erritmoa... kontuan hartuz, zein sentsazio sortu dizu?
- Abestian erritmoa koherentea da transmititu nahi den mezuarekin? Hitza eta doinua helburuan oinarritzen direla uste duzu?



2.1. Fitxa

GEZURRA DA

gezurra da, gezurra bai
bizi dugun garaia, bai
ongizatearen gizartean miseriarik ez da
zein ondo egoten gara merkatalgune handietan


gogor datoz eskuinetik
iparrik ez ezkerretik
beldurra sortu, etsaiak egin: sinistu eta iraunbizi
zergak ordaindu, zintzo ibili, botoa eman eta isilik

"Deabruak teilatuetan" taldearen abestia.

Erljioa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Jesusen mezuari eta beraren bizimodu konprometituari buruz hausnartzea.
- Esperientziak, hausnarketak eta sentimenduak beste pertsona batzuekin partekatzea.
- Munduaren aldaketan norberaren parte-hartzeaz jabetzea eta aztertzea.
- Sinestun gisa mundua hobetzeko eta duin bihurtzeko dugun erantzukizun pertsonala eta kolektiboa ulertzea.

Jarduerak

1 Jarduera:

“Konpromiso kontua da”

Deskribapena: Ariketa honen helburua Jesusen irudia eta Elizaren funtzioa aztertzea da; Eliza haren dizipulu eta Jainkoaren erreinua sortzeko laguntzaile eta jarraitzaile gisa hartuta. Ariketa honi ekiteko, ikasleek Jesusen mezuari eta bizimodu konprometituari buruz hausnartuko dute bakarka, eta, ondoren, taldeka, horren gainean eztabaidatuko dute. Gero, ikasleek hainbat arlotan (hurbileko ingurunean, munduan...) eragile eraldatzaile eta justiziaren sortzaile gisa duten konpromisoa aztertuko dute. Azkenik, Paulo Freireren testu bat irakurtzeko eskatu-diegu. Taldeka, lehen esan dutena kontuan hartuz, testu bat idatziko dute Jesusen jarraitzaileek gaur egun nola parte har dezaketen proposatzeko.

Materiala: 1.1 fitxa.

Dinamika: Bakarkakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.



2 Jarduera:

“Gorputza bera”

Deskribapena: Taldeka ariketa hau egiteko behar duten materiala sortuko dute: gizaki baten tamaina naturaleko silueta marraztuko dute paperean eta kartoi mehean egindako gorputzeko atal desberdinak ebakiko dituzte: eskuak, oinak, ahoa, belarriak, etab. Ikaskide adina kartoi mehe zati egongo dira. Ariketa hasteko, pertsona guztiak gorputz baten parte garela pentsatu behar dugu. Gutako bakoitza Jainkoaren eskuak, oinak... garela pentsatu behar dugu, munduan jarduteko eta esku hartzeko tresnak.

Siluetaren marrazkia duen papera horman ipiniko dute, eta, ondoren, taldeko kideei kartoi mehearen zati bana emango diegu. Ikasle bakoitzak, tokatu zaion gorputzeko atalaren arabera, Jainkoaren eskuak, ahoak eta abarrek munduan nola parte har dezaketean idatziko du.

Gero, kartoi-zatia siluetan itsatsiko dute eta, Jainkoaren eskuak, belarriak (edo dena dela-koa) izanik, parte-hartzeko zein bide aurkitu duten azalduko diete taldeko beste kideei. Amaitutakoan, talde bakoitzak zer egin duen azalduko die beste ikaskideei. Azkenik, guztien artean, Jesusen jarraitzaile gisa proposamen horietako bat egiteko konpromisoa hartzeko eskatzen zaie.

Materiala: Kartoi meheak, guraizeak, zeloa, boligrafoak, zatar-papera, 2.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizunak: Bakarkako konpromisoen aurkezpena, adibidez, eukaristiaren testuinguruan egin daiteke.

1.1. Fitxa

Bakarka hausnartzeko

Jesusek Ebanjelioan esaten duen eta egiten duen guztiak zentzu bakarra du: Jaunaren Erreinua eraikitzea. Ideia horren inguruan garatzen dira haren bizitza eta jarduera guztiak.

Jesuentzat, Jaunaren Erreinua beste erreinuen kontrakoa da. Erreinu horietan zapalketa eta injustizia dira nagusi eta gizakien duintasuna ez da kontuan hartzen. Jesusek iragartzen eta erakusten digun Jaunaren Erreinua ez dator bat haren garaiko gizarteak eta gaur egungoak egokia dela pentsatzen duenarekin.

Jesus beraren garaiarekin eta herriarekin konprometiturik dagoen gizona da. Haren bizitza konpromiso horren etengabeko froga da. Munduko aktorea eta protagonista izatea erabaki zuen. Ez zen geratu besoak gurutzatuta, eta esku hartuko duten gizon eta emakume berriak izatera eta bidezko eta guztientzako erreinua eta mundua eraikitzaera bultzatzen gaitu guztiok.

Taldean eztabaidatzeko

- Bere mezuaren eta bizimoduaren bidez, Jesusek gizartearen parte hartzeko adibideak ematen dizkigu. Bila ditzagun Biblian Jesusek, adibide zehatzen bidez, mundu duina eta bidezkoa lortzeko borroka bere hitzen eta ekintzen bidez transmititzen digun pasarteak.
- Zer transmititzen digu Jesusek bere bizitzaren, hitzen eta ekintzen bidez? Zertara bultzatzen gaitu? Jesusen hitzaren jarraitzaile gisa, zein da gure zeregina etxean, auzoan edo munduan?
- Jesusen dizipulu gisa eta Jainkoaren Erreinua eraikitzeko jarraitzaile eta laguntzaile gisa, zein da Elizaren zeregina?
- Irakur ezazue Paulo Freireren testu hau eta taldeka, eztabaida ezazue horren gainean. Zein mezu helarazten digu?

Gizon berria eta emakume berria

Gizon berria eta emakume berria ez dira kasualitatez azaldu. Gizon berria eta emakume berria gizartea berreraiki ahala sortu dira. Orain, aipa ditzagun gizon berriak eta emakume berriak zein ezaugarri dituzten.

Ezaugarrietako bat herriaren kausarekiko konpromisoa da. Beste bat betebeharrarekiko erantzukizuna da, zer egin behar den kontuan hartu gabe.

Indibidualismoa eta egoismoa gainditzeko ikastea gizon berriaren eta emakume berriaren ezaugarria da.

Gure autonomiaren eta askatasunaren defentsa ere gizon berriaren eta emakume berriaren ezaugarria da.

Gure herriarekiko eta besteen herriekiko elkartasunaren zentzua gizon berriaren eta emakume berriaren beste ezaugarri bat da.

Gaur egin daitekeena biharko ez uztea eta egin beharrekoa egunetik egunera hobeto egitea gizon berriaren eta emakume berriaren berezko ezaugarriak dira.

Errealitatea hobeto ezagutzeko aztertzea, hausnartzea eta jakin-mina garatzea, sortzea eta berriro egitea, behar bezala kritikatzeko eta kritika konstruktiboak onartzea gizon-emakume berrien ezaugarriak dira.

PAULO FREIRE. CARTAS DO EXILIO. 2002KO AGENDA LATINOAMERICANA MUNDIAL-ETIK HARTUTA. 233. OR.

- Taldeka, idatzi testu bat eta azaldu Jesusek, bere bizitzeko moduarekin, parte-hartzeko zein modu erakusten digun. Zertan konprometitzeko eskatzen digu? Hainbat literatur baliabide eta formatu erabil ditzakezu eta, batik bat, irudimen handia!!!

2.1. Fitxa

Aurreko ariketan oinarrituz, hainbat ideia emango ditugu Jesusen irudiari eta haren mezuak eskatzen digunari buruz.

Pertsona guztiak Jainkoaren eskuak, oinak, ahoa edo dena delakoa gara. Jainkoak gu erabiltzen gaitu munduan esku hartzeko, bere tresnak gara. Baina, nola esaten digu hori egiteko? Nola izan gaitzke eragile parte-hartzaileak? Zein da bere mezua? Zer egiteko eskatzen digu?

Paper handi batean gizakiaren silueta marraztuko dugu eta kartoi mehean gorputzeko atalak: eskuak, oinak, bihotza, ahoa, sudurra, belarriak, etab. Paper hori horman jarriko dugu. Taldeko kide bakoitzak gorputzeko atal bat erakusten duen kartoi mehea edukiko du. Bakarka hausnartu eta gero idatzi kartoi mehean nola joka dezakegun familian, auzoan, herrian edo munduan Jesusen mezua kontuan hartuz. Begiratu arretaz eskuan duzun gorputzeko atalari (eskuak, ahoa...) eta pentsatu horren bidez nola parte har dezakezuen.

Txandaka, kartoi mehea hormako siluetaren gainean itsatsi eta, beste ikaskideekin, han idatzi duzenari buruz hitz egin.

Partekatu zure ideia ikaskide guztiekin eta hartu konpromiso bat guztien artean!!!!